



DEIALDIA, HAUTAKETA-PROBEN BIDEZ HAUTAGAIEN ZERRENDATA BAT OSATZEKO GIZARTE-ENPLEGUKO OFIZIAL LANPOSTUAN –PINTURAKO ESPEZIALITATEA– ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA.

OINARRIAK

Lehen a. Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da, hautaketa-proben bidez hautagaien zerrenda bat osatzeko gizarte-enpleguko ofizial lanpostuan –pinturako espezialitatea– aldi baterako kontratu bidez aritze aldera, Iruñeko Udalean gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarren a. Izangaiak bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsita nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikagarria duen eremuko estatu batekoa.

Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko beste estatu bateko edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatu baten nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere parte hartzen ahal dute, betiere, zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien kargura bizi badira.

- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Eskola Graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea den titularen bat edukitzea, edo hura erdiesteko maneran egotea eskaerak aurkezteko muga egunean.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

- d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzuetan bereizita ere.
- f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiak zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adieraziz ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.
- g) Ibilgailuak gidatzeko B motako baimena edukitzea.



2.2. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute deialdi honen 2.1. apartatuan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena. Eskabideak.

3.1. Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskaerak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdi honen testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskaerak aurkezteko ezarritako epea luzaezina izanen da.

3.2. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskaera telematikoki aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraiki: "Izapideak eta lizitazioak", "Lan-eskaintzak", "Enplegu publikoa", "Enplegu publikoko deialdiak", deialdi honi dagokion aipamenean.

3.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik ordaindu beharreko tasa 5 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskaera formalizatzeko unean, telematikoki ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

3.4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskaera online aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen dituen agiriarena, eta behar izatera, nazionalitate- eta ahaidetasun-baldintzei buruzko agiriarenak.
- b) Deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatutako titulazioen fotokopia.
- c) Ibilgailuak gidatzeko B motako baimenaren fotokopia.
- d) Deialdiaren 5.3. oinarrian aipatutako merezimenduen balorazioari dagokionez alegatzen diren merezimendu guztien egiaztagirien fotokopia.

Desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita,



eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten, eta eskatutako egokitzapenak.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta baliorik gabe geldituko dira ordura arte haien gauzatutako egintza guztiak, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

Aski izanen da dokumentazioaren kopia arruntak aurkeztea, baina aurkeztutako datuak edo agiriak ez-zuzenak edo faltsuak badira, eskatuko dira behar diren erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Laugarrena. Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrenda eta behin betikoa.

4.1. Eskakerak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Pertsonen Kudeaketako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

4.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzean adierazten den tramitearen bidez.

4.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatuak eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Pertsonen Kudeaketako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautaproba egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta webgunean argitaratuko, hautaproba egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko, baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

4.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Bosgarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

5.1. Hautaketa-prozesua bi fasetan egingen da: lehenik, proben fasea, eta ondoren merezimenduak baloratzeko fasea, oinarri hauetan adierazitako moduan.

5.2. Probak.



a) Lehen proba. Proba teorikoa: izangaiek test erako galderak dituen galdetegi bat idatziz erantzun beharko dute –Epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran–. Galderak Deialdi honen I. eranskineko gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira; galdera bakoitzari erantzuteko aukera batzuk egonen dira, eta horietako bat bakarrik izanen da baliozkoa.

Proba honek gehienez ere 40 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortuko diren akatsak erantzun anitzeko galderetan.

b) Bigarren proba. Proba praktikoa. Izangaiek pinturako ofizial lanbideari lotutako kasu praktiko bat edo batzuk egin beharko dituzte.

Proban gehienez ere 30 puntu eskuratzen ahalko dira. Probaren xehetasunak eta balorazio-irizpideak hura hasi aurretik zehaztuko dira.

Epaimahaiak zehaztuko du bi proba horietako ariketak egun bakarrean eginen diren, baita horien iraupena ere, edukien eta egoki jotako izangai-kopuruaren arabera.

Fase hau gaindituko dute bi probetan guztira ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 (35 puntu) gutxienez lortzen duten izangaiek.

5.3. Merezimenduen balorazioa: ez da baztergarria izanen, eta gehieneko puntuazioa 30 puntu izanen da, II. eranskinean ezarritako baremoarekin bat.

Aurreko apartatuetan alegatu eta justifikatutako merezimenduak onetsitako baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak. Merezimenduak agiri bidez alegatu eta frogatu beharko dira lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkeztean. Epaimahaiak ezin izanen du inolaz ere kontuan hartu alegatu gabeko eta agirien bidez egiaztatu gabeko merezimendurik, ezta apartatu bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Epaimahaiak azalpenak eta datu osagarriak eskatzen ahalko ditu izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

5.4. Proba bakoitzerako deialdi bakarra eginen da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaportearen edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira haietara. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiek baztertuta geratuko dira.

5.5. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

5.6. Proba bakoitza egin ondoren, udal-webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.

Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta. Behin erreklamazioak ebatzita, eta hala badagokio, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta tokia adieraziko dira.

Seigarrena. Epaimahai-kalifikatzailea.



6.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Ricardo Elizalde Abrego, Iruñeko Udaleko Enplegu programen arduraduna.

Epaimahaiburu - ordezkoa: Imelda Cillero Ballaz, Iruñeko Udaleko Gizarteratze programaren arduraduna.

Epaimahaikidea: Elvira Mateos Fernández, Iruñeko Udaleko gizarte-enplegu programako arkitekto teknikoa.

Epaimahaikide ordezkoa: Juan Ignacio Barberena Biurrarena, Iruñeko Udalaren Lantegi Eskolako zuzendaria.

Epaimahaikidea: Ion González Abadias, Iruñeko Udaleko gizarte-enplegu arduraduna pinturako espezialitatean.

Epaimahaikide ordezkoa: Unai Tollar Urmeneta, Iruñeko Udaleko gizarte-enplegu ofiziala pinturako espezialitatean.

Epaimahaikidea: Sonia Ochoa Pardo, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkoa: Tatiana Elizabeth Parra Ochoa, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Marta Martínez Llobet, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako teknikaria.

Epaimahaikide-idazkari ordezkoa: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako teknikaria.

6.2. Hautaprobak egiten hasi aurretik eratu beharko da Epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezekoek, kontuan harturik ordezeko izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezeko gisara izendatutakoak, bigarren ordezpena egitea beharrezkoa izanez gero.

6.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako aurreikusitako dauden arrazoak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.



Zazpigarrena. Gainditu dutenen zerrenda.

7.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen du Udalaren webgunean, deialdiko zerrenda bakoitzean proba gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Pertsonen Kudeaketa zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

7.2. Izangaiek lortu duten puntuazioetan gertatzen ahal diren berdinketak Kalifikazio-epaimahaiak ebatziko ditu, hautapen-prozesuaren bigarren proban, hau da, proba praktikoan lortutako puntuaziorik altuenaren arabera. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, lehen proban lortutako puntuaziorik altuenaren arabera ebatziko da, eta, azkenik, Pertsonen Kudeaketako Alorrean horretarako egindako zozketa bidez, berdinduta dauden izangaiei deituko zaielarik zozketan egon daitezen.

7.3. Izangai-zerrendak izangaiak deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei osasun-azterketa bat eginen zaie, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Zortzigarrena. Izangaien zerrendak eta dei egitea.

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Pertsonen Kudeaketako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

Arau honek aipatzen duen zerrendako izangaiei deitzea, honako arau hauetan ezarritakoarekin bat eginen da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren Xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Momentu horretan eskatzen ahalko zaizkie deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotuak.

Bederatzigarrena. Errekurtsoak.



Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahal da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertzeke errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.



I. ERANSKINA

GAITEGIA

1. Pintura barneko zein kanpoko eraikuntza-eta apainketa-elementu gisa. Pinturako teknikak eta margotzeko prozesuak.
2. Produktuak eta materialak pinturan: erabilerak eta erabiltzeko erak.
3. Pinturako tresnak eta lanabesak: funtzionaltasunak eta gordetzeko moduak.
4. Lantaldeen kudeaketa: lidergoa lanean, zereginen antolaketa eta planifikazioa.
5. Osasuna eta segurtasuna lanpostuan. Laneko arriskuen prebentzioa.
6. Iruñeko Udaleko Gizarte Enplegu Babestuko programa: Egitura, definizioa, helburuak eta oinarrizko metodologiak.



II. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BALORAZIOA. 30 PUNTU, GEHIENEZ

LAN-ESPERIENTZIA. GEHIENEO PUNTUAZIOA: 20 PUNTU.

- Pinturako ofizial gisa egiaztatutako laneko eskarmentuagatik. 1 puntu lan horretan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.
- Pinturako ofizial gisa egiaztatutako laneko eskarmentuagatik gizarte enplegu babestuko programetan edo prestakuntza/lan programetan. 2 puntu lan horretan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 10 puntu.

Lan-eskarmentua egiaztatzeko beharrezkoa izanen da lan-bizitzaren txostena eta zein lanpostutan aritu den egiaztatuko duen dokumentua aurkeztea.

PRESTAKUNTZA. GEHIENEO PUNTUAZIOA: 10 PUNTU.

- a. Pinturarekin, bitarteko osagarriekin edo arriskuen prebentzioarekin lotutako prestakuntza-jardueretan parte-hartzea: 2 puntu 8 ordutik gorako prestakuntza-jarduera bakoitzeko.
- b. Arreta, kudeaketa edo pertsona edo taldeei laguntzeko prestakuntza-jardueretan parte-hartzea: 2 puntu 8 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko.